



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSA-OHARRA

# BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK 2021EKO AURREKONTUEN ZUZENKETA PARTZIALEN EZTABAIDEA ITXI DABE

- Ogasun eta Finantzetako Batzordeak kontu publikoen erespena aurkeztuko dau, datorren eguaztenean, zezeilaren 24an, Gernikan egingo dan osoko bilkuran kontu horreek berretsi daitezcan.
- Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek sei eztabaida-jardunaldietako zuzenketa-eske bakarra onartu dabe batzordean, 2021ean Interbiak-ek “45 milioi euroko” zorpetze-marjina euki daian.

(*Bilbon, 2021eko zezeilaren 15an*). Bizkaiko Batzar Nagusiak gaur itxi ditue 2021eko Bizkaiko Aurrekontuen proiektuari egindako zuzenketa-eske parzialak eztabaidatzeko joan dan astelehenean, zezeilaren 8an hasi ziran sei jardunaldiak. Ogasun eta Finantzetako Batzordeak txostena aurkeztuko dau orain, datorren eguaztenean, zezeilaren 24an, Gernikan egingo dan bilkuran lurraldeko kontuak onartzeko.

Gaur, Bizkaiko Batzarretako taldeek Ogasun eta Finantzetako sailaren aurrekontuari eta testu artikuluari aurkeztutako 50 zuzenketa-eske baino gehiago aztertu dira. Bilkuran, osoko bilkurara iritsiko dan aurrekontu-aldaketa bakarra adostu da. Aldaketa hori Foru Gobernua eusten daben Batzarretako talde biek (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak) proponidu dabe, eta Interbiak foru-soziedadeari 45 milioi euroko merkataritzako zorpetzea gehitzea barne hartzen dau.

Onartutako zuzenketa-eskeak Aurrekontuen 29. artikulua aldatuko dau. Pandemiak eragindako inpaktua dala-eta, soziedade horrek diru-sarreraren arloko aurreikuspenak beteten ez dituan ez, zor hori barrero planteauko da, “finantzaketa-kontratuetatik eta abian dituan jarduketak gauzatzetik eratorritako ordainketa-betebeharrei erantzun ahal izateko”. Jeltzaleek eta sozialistek sinatutako zuzenketa-eskean adierazoten danez, zorpetzeko marjina bat aurreikustek “zuhurra” emoten dau.

Oposizinoko hiru taldeek (Talde Berezia-PPB, Elkarrekin Bizkaia eta EH Bildu) proposamenaren eta 29. artikularen kontra bozkau dabe. Artikulu horrek, 2021eko abenduaren 31n, ia 90 milioitan izten dau soziedade horren eta beste hiru merkataritza-soziedaderen epe luzeko zorpetze-bolumena. Beste 17 milioi euro Azpiegiturak erakundearentzat izango litzatekez; 4.923.000 euro Sestao Bairentzat; eta 22.727.000 euro Garbikerrentzat.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Eneritz de Madariaga Elkarrekin Bizkaia taldearen bozeroaleak, zuzenketa-eskearen kontrako txandan, Interbiaken proiektuak “ahalik eta azkarren barrikustea” eskatu dau. Eta Arantza Urkaregi EH bilduko ordezkariak uko egin deutso zorpetze hori babesteari, soziedade horrek, “gure lehentasunen artean ez dagozan” azpiegitura “erraldoiak” planteetan ditualako. Talde Bereziko bozeroaleak ez dau botoa azaltzeko txandan parte hartu.

Jose Maria Iruarrizagak zuzentzen dauen sailaren kontuei jagokenez, Gernikara aldaketa barik iritsiko dira. Ogasun eta Finantzetako Sailak 54,4 milioi euroko aurrekontua izango dau, Aldundi osoak izango dauen 1.358,8 milioi euroko aurrekontuaren barruan. Guztira 7.970,8 milioi euroko gastu eta sarrerak aurreikusten dituen 2021erako Bizkaiko Kontuek, 294,3 milioi euroko zorpetzea sartuko dabe urte honetan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

# LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA CIERRAN EL DEBATE DE LAS ENMIENDAS PARCIALES DE LOS PRESUPUESTOS DE 2021

- **La Comisión de Haciendas y Finanzas elevará el dictamen de las Cuentas públicas para que sean ratificadas previsiblemente el próximo miércoles, 24 de febrero, en un pleno a celebrar en Gernika.**
- **Los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos aprueban la única enmienda en comisión de las seis jornadas de debate para que Interbiak cuente con un margen de endeudamiento de “45 millones de euros” en 2021.**

*(Bilbao, a 15 de febrero de 2021).* Las Juntas Generales de Bizkaia han cerrado hoy las seis jornadas de debate de las enmiendas parciales al proyecto de Presupuestos de Bizkaia de 2021, iniciadas el pasado lunes 8 de febrero. La Comisión de Hacienda y Finanzas elevará ahora el dictamen para que el pleno apruebe previsiblemente la cuentas del territorio el próximo miércoles, 24 de febrero, en una sesión a celebrar en Gernika.

Hoy, el Parlamento de Bizkaia ha tratado más de medio centenar de enmiendas que los grupos junteros habían presentado al Presupuesto de Hacienda y Finanzas y al texto Articulado. En la sesión se ha acordado el único cambio presupuestario que llegará a la sesión plenaria, una modificación planteada por los dos grupos junteros que sustentan al Gobierno foral, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, y que incluye incorporar un endeudamiento comercial por importe de 45 millones de euros para la sociedad foral Interbiak.

La enmienda aprobada incluye una modificación del artículo 29 de los Presupuestos. En virtud de que esta sociedad se vea afectada por el incumplimiento de las previsiones en materia de ingresos debido al impacto generado por la pandemia, se plantea la citada deuda “a fin de poder atender las obligaciones de pago derivadas de los contratos de financiación y de la ejecución de las actuaciones que Interbiak tiene en marcha” se señala en la enmienda firmada por jeltzales y socialistas, por lo que parece “prudente” contemplar un margen de endeudamiento adicional.

Los tres grupos de la oposición (grupo Mixto-PPB, Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu) han votado en contra de la propuesta y del propio artículo 29 que deja, a



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

31 de diciembre de 2021 , el volumen de endeudamiento comercial a largo plazo de ésta y otras tres sociedades mercantiles en casi 90 millones. Otros 17 millones de euros de límite de deuda se reservan para Azpiegiturak; 4.923.000 euros, para Sestao Bai; y 22.727.000 euros, para Garbiker.

La portavoz de Elkarrekin Bizkaia, Eneritz de Madariaga, en su turno en contra, ha pedido una “revisión” de los proyectos de Interbiak “a la mayor brevedad posible”. Y Arantza Urkaregi, de EH Bildu, ha rechazado apoyar este endeudamiento, ya que esta sociedad plantea infraestructuras “gigantes” que “no están entre nuestras prioridades”. La portavoz del grupo Mixto no ha intervenido en su turno de explicación de voto.

En lo que se refiere a las cuentas del departamento que dirige José María Iruarrizaga, éstas llegarán sin modificaciones a Gernika. Hacienda y Finanzas contará con un presupuesto de 54,4 millones de euros, cifra incluida en los 1.358,8 millones de euros del disponible departamental de toda la Diputación. Las Cuentas de Bizkaia para el año 2021, que contemplan un total de gastos e ingresos por importe de 7.970,8 millones de euros, introducen un endeudamiento de 294,3 millones de euros para este año.